

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hiru Behien Zergak Pirinioetako Lan Komunitatearen saria jaso du Tolosan

Angel Luis de Miguel Izabako alkateak jaso zuen atzo saria. Ekitaldi berean, gainera, Nafarroak Pirinioetako Lan Komunitatearen presidentetza hartu zuen

Viernes, 28 de octubre de 2011

Hiru Behien Zergak Pirinioetako Lan Komunitatearen saria jaso zuen atzo, osteguna, Tolosan. Horren bitartez, mugaz gaindiko hitzarmen gisa bete duen eginkizun historikoa eta kultura-ondare inmaterial gisa duen balioa aintzatetsi dira. Saria eskultura bat da, eta Pirinioen sinbolo diren esku gurutzatuak irudikatzen ditu. Angel Luis de Miguel Izabako alkateak (Erronkaribarreko udalerrien ordezkari gisa), Pierre



Ipas, Casabonne, De Miguel, Barcina eta Sánchez de Muniáin

Casabonne Eretako alkateak (Baretos ibarraren ordezkari gisa) eta Félix José Ipas Ansoko (Huesca) alkateak (herri horretan eman zen Zergaren jatorria den arbitrajeko laudoa) jaso zuten.

Saria emateko ekitaldia Pirinioetako Lan Komunitatearen osoko bileraren barruan egin zen. Osoko bilera horretan [Nafarroak osoko bileraren presidentetza hartu zuen](#) datozen bi urteetarako.

Angel Luis de Miguelek esan zuenez, aintzatespenak "UNESCOK Hiru Behien Zerga gizadiaren ondare gisa izendatzea" lortzen lagunduko die. Horrez gain, Izabako alkateak adierazi zuen Pirinioetako Lan Komunitateak Izaban lan jardunaldi bat antolatzea nahiko lukeela bakearentzako saria sortze aldera, izan ere, "Hiru Behien Zerga Europako bakearen jairik zaharrena da".

Hiru Behien Zerga

Hiru Behien Zerga Europako mugaz gaindiko bake itunik zaharrena da; 1375etik dago indarrean. Urte hartan, Antso herriko arbitrajeko laudo batek Erronkaribarreko eta Baretos ibarreko biztanleen arteko liskar etengabeak amaitu zituen, goiko larreak eta iturriak erabiltzearen ingurukoak.

Baretos ibarreko abeltzainek Izabako, Gardeko, Urzainkiko eta Uztarrozeko (Erronkaribar) mugaz gaindiko bizilagunei espezieetan

ordaintzen diete (hiru behi emanda) haien larreak erabiltzeko eskubidea izan dezaten. Ematen diren abelburuek "sine macula" (orbanik gabekoak) izan behar dute eta hortz-hagin, ile eta adarkera berdintsukoak izan behar dira.

Urtero, uztailaren 13an, ekitaldi bat egiten da Ernaz muinoan (Izaba), San Martingo harriaren ondoan, hitzarmena gogoratzeko. Harri hori Espainiaren eta Frantziaren arteko 262. muga da. Egun horretan, Erronkaribarreko eta Baretos ibarreko alkateek, inguruko janzkera tradizionala jantzita, harriaren gainean eskuak jarri eta "pax avant" esaten dute (bakea hemendik aurrera) adiskidetasuna eta lankidetzaz adierazteko.